# HEZKUNTZA PROPOSAMENA

2019
2020
KURTSOA




**AHOLKULARITZA**
kulturartekotasuna, hezkidetza, hiritartasun globalerako hezkuntza, parte hartzea, gatazken kudeaketa edota kontsumo arduratsua eta ingurumena bezalako gaietan,

**NEURRIRA DISEINATUTAKO PRESTAKUNTZA,**
ikastetxe eta talde bakoitzari egokitutako proposamenekin,

**ETA LAGUNTZA**
hezkuntza proposamenen garapenean.

# PROPOSAMEN PEDAGOGIKO BERRITZAILEAK



## EZAGUTU, SENTITU ETA MOBILIZATU ZAITEZ PERTSONA ERREFUXIATUEN ALDE!

- **Mugetatik haratago** gure **kulturartekotasun** testuingurua, **lekualdatze behartuen** prozesuak eta errefuxiatuen errealitatea ezagutzeko hezkuntza-proposamena da.

  Ikastetxeei zuzenduta, proposamenak irakasleei zuzendutako **trebakuntza** saioak, ikasleentzako **bizipen-ikaskuntza** proposamena (3 eguneko egonaldia Loiolan), eta hezkuntza komunitateari zuzendutako **sentsibilizazio eta mobilizazio** ekintzak eskaintzen ditu.

  Hezkuntza ez-formaleko talde bateko kide bazara eta gure proposamena bizipen-modu batean landu nahi baduzu, ez galdu aukera astebururuetan antolatzen ditugun saioetan parte hartzeko. Gure proposamena hainbat **aisialdi taldeen** beharrizanetara egokitzen da. Kontsultatu gaitzazu!
- **Change** ekimena Europako 8 herrialdetako gazteei zuzenduta dago. Helburua, guztion artean kulturartekotasunean oinarritutako gizarte inklusiboa eraikitzeko bidea egitea da Hainbat ikastetxe eta gazte-taldeei euren sentsibilizazio ekimenak aurrera eramaten lagunduko diegu, beste herrialdeetako gazte-taldeekin elkarlanean. Interesgarria baderitzozu, kontaktuan jarri!

## KULTURARTEKOTASUNA, PROIEKTUEN BITARTEZ

**Munduko hiritarrok. Kulturartekotasuna** diziplina anitzeko **hezkuntza berritzatze** proposamen bat da. Ikastetxeei zuzendutako material honek hainbat gai lantzen ditu, hala nola herritartasun unibertsala, aniztasunaren kudeaketa ona, parte hartze soziala edota trebetasun kultural zein sozialen garapena. Ataka landu badaitezke ere, DBHko eta Batxilergoko hezkuntza-etapetarako materialak **proiektu bidez lan egiteko ibilbideak** eskaintzen dituzte. Gida-liburuekin batera posterrak, bideoak eta jolasak izango dituzu eskuragai.

## HEZKIDETZA

- Ikastetxeentzako **hezkidetza autodiagnostikoak** eta **planak** aurrera eramateko laguntza. Prozesua aurrera eramateko irakasleekin tailerrak.
- **Hezkidetzan hezi, berdintasunean hazi:** hezkidetza hezkuntza maila guztietan lantzeko proposamen pedagogikoa. Eremu formalerako zein ez-formalerako erabili daiteke. Gida liburua, posterrak eta familiekin lan egiteko "kit" batez osatuta.

## GATAZKARIK GABEKO TEKNOLOGIA

Proposamen honek **teknologia** kontsumoa, **ingurugiroaren hondamena** eta lehengaiak esportatzen dituzten herrialdeetan ematen diren **giza eskubideen urraketaren** arteko erlazioa nabarmentzen du. Formakuntza materialak eskaintzen ditu, gelan, zure elkartearekin edo zure taldearekin lan egiteko. Era berean, **aldaketaren aldeko mobilizazio** proposamenak eskaintzen ditu. www.tecnologialibredeconflicto.org/eu

# ERAKUSKETAK

Eraman ezazu gure erakusketaren bat, bere proposamen didaktikoarekin, zure ikastetxean, elkartean edo taldean lan egiteko. Hainbat gai grafikoki lantzeko aukera izango duzu: pertsona migrante eta errefuxiatuen egoera, Gatazkarik Gabeko Teknologia, genero desberdintasunak, etab. Kontsultatu zure eskaera egiteko!

# SAREAK

Hainbat pertsonekin, elkarteekin eta ikastetxeekin elkartasun-sareak sustatzen ditugu, hezkuntza arloan elkarlanerako espazioak eratzeko.

Parte hartzera animatzen al zara?

**EDUKALBOAN**
Hiritartasun globala sustatuko duen hezkuntza eraldatzaile baten aldeko hezitzaileen sarea.
www.edukalboan.alboan.org/eu

**ALBOAN Gazte Sarea**
Hiritartasun globala eta aldaketa soziala sustatzeko gazte taldeen eta elkarteen sarea.
Jarraitu gaitzazu:
www.instagram.com/alboangaztesarea
eta www.facebook.com/alboanGazteSarea

# HEZKUNTZA BALIABIDEAK ON-LINE

Gizarte eraldaketarako hainbat baliabide eta hezkuntza materialak, klik bakar batean!
Hezkuntza materialen webgunea: www.educacion.alboan.org/eu
Baliabide Zentroa: centroderecursos.alboan.org/eu

# INFORMAZIO GEHIAGO

Informazio gehiago jaso nahi baduzu, edota zure ikastetxe, elkarte edo talderako proposamen pertsonalizatua diseinatzea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan!
educacion@alboan.org

Bizkaia eta Araba: 944 151 135 Gipuzkoa: 943 275 173
Nafarroa: 948 231 302